Muñoz Francisco (1909-11)  
Muru Manuel Antonio (1822)  
Murua Juan Antonio (1811)  
Murua Miguel Antonio (1814)

### O

Olabe Domingo (1768, 83)  
Olabe Fernando (1828)  
Olabe Pedro (1756, 58)  
Olabe Pedro (1827)  
Olabe Pedro Francisco (1807)  
Ondrabide Gregorio (1642)  
Orbea Andres (1752)  
Orbea Diego (1746)  
Orbea Esteban (1949-55)  
Orbea Francisco (1669)  
Orbea Francisco (1596)  
Orbea Juan (1493)  
Orbea Juan Bautista (1624, 33)  
Orbea Juan Manuel (1863-64, 73)  
Orbea Mateo (1881-83)  
Orbea Miguel (1629)  
Orbea Miguel M<sup>a</sup> (1904-08)  
Orbea Pedro (1619)  
Orbea y Urkizu Martin (1719, 30, 36)  
Oria Justo (1941-49)  
Ortiz de Zarate Inocencio (1873, 76)  
Otaola Domingo (1612)

# Herriko alkateak ABIZENEZ

## ALFABETIKOKI ORDENATUTA

### P

- Pagaegi Cristobal (1772, 77)  
 Pagaegi Pedro (1836)  
 Palacios Luis (1955-58)  
 Perez de Ibarra Cristobal (1628, 53, 67)

### R

- Rezabal Francisco (1698)  
 Rezabal y Ugarte Jose (1789)  
 Ruiz de Egiguren Martin (1602, 06)

### S

- Salinas Francisco Antonio (1726, 34)  
 Sanchez de Ibarra Sancho (1492)  
 Santa Cruz-eko Markesa (1779, 95, 1804)  
 Sarasketa Andres (1755, 78)  
 Soroeta Juan Antonio (1750, 54, 59, 62)  
 Sugadi Cristobal (1584, 1610)  
 Suinaga Hilarion (1909)  
 Suinaga Lucas (1764)  
 Suinaga Pedro Francisco (1831, 35)  
 Sumendiaga Juan (1596)  
 Sustaeta Ambrosio (1838, 46)

### T

- Telleria Alejandro (1920-21, 31-34, 36-37)

### U

- Unzeta Antonio (1653)  
 Unzeta Martin (1714)  
 Unzeta Bartolome (1654, 63)  
 Unzeta Bartolome (1723)  
 Unzeta Francisco (1639)  
 Unzeta Hilario (1924)  
 Unzeta Juan Francisco (1713)  
 Unzeta Sebastian (1689)  
 Unzeta e Ibarra Ignacio (1678)  
 Unzeta y Jaolaza Pedro Antonio (1741)  
 Unzeta y Jauregi Francisco (1721, 27)  
 Unzeta y Jauregi Juan Francisco (1687, 1705, 09)  
 Unzeta y Jauregi Sebastian (1677, 85)  
 Unzeturabarrenetxea Pedro Roman (1926)  
 Unzueta Francisco (1700)  
 Unzueta Pedro (1650)  
 Unzueta Pedro Antonio (1746)  
 Unzueta y Jauregi Sebastian (1671)  
 Urkiola Francisco (1815)

### V

- Velez de Guevara Iñigo (1691)  
 Villabella y Treviño Benjamin (1922-23)

### Y

- Yraolagoitia Antonio M<sup>a</sup> (1973-77)

### Z

- Zabala Jose (1722, 28, 37)  
 Zelaia Matias (1620)  
 Zezeil Diego (1749)  
 Zubiate Timoteo (1930)  
 Zuloaga Placido (1883-85)  
 Zumaran Sebastian (1766, 76, 87, 96)

# Karguan URTE GEHIEN

## EMAN DITUZTEN ALKATEAK

### 16 urte

Iñaki Arriola (1993-2008)

### 14 urte

Miguel de los Toyos (2008-21)

### 11 urte

Felix Gisasola (1843, 1855-57, 1869-72, 1876-78)

### 9 urte

Justo Oria (1941-49)

### 8 urte

Alejandro Telleria (1920-21, 1931-34, 1936-37)

### 7 urte

Aurora Baskaran (1987-93)  
Jose M<sup>a</sup> Etxeberria (1967-73)  
Jose Gonzalez Orbea (1924-25, 37-41)  
Esteban Orbea (1949-55)

### 6 urte

Miguel Arizmendi (1639, 41, 46, 55, 60, 72)  
Jose Hernando (1962-67)

### 5 urte

Jesus M<sup>a</sup> Agirre (1983-87)  
Juan Antonio Arizmendi (1676, 80, 84, 93, 97)  
Fco. Ignacio Egiguren (1702, 06, 16, 25, 32)  
Javier Eguren (1958-62)  
Jose Cruz Etxeberria (1885-89)  
Antonio Iturrioz (1897-1901)  
Antonio Larrañaga (1848-51, 1874)  
Mikel Larrañaga (1979-83)  
Damian Manzisidor (1652, 1669-70, 1675, 1688)  
Miguel M<sup>a</sup> Orbea (1904-08)  
Antonio M<sup>a</sup> Yraolagoitia (1973-77)



Antonio Iturrioz. 1897-1901. XX. mendeko lehenengo alkatearen hileta. Errepublikarra zen.



1914. Untzaga plazan pasiatzen. Atzean, musika kiosko zaharra. Fermin Calbeton ministroa bisitari zutela, berarekin J.R. Iriondo, Juan Jose Larrañaga eta Juan Astigarraga alkatea.

# Udal Hauteskundeak demokrazian

1979AN

## Mikel Larrañaga

### EAJ-PNV: 8

Mikel Larrañaga, Pedro Lopez, Jose M<sup>a</sup> Azkarate, Fco. Javier Unztabarrenetxea, Jose Luis Urzuriaga, Juan Cruz Gallastegi, Jose Luis Perez Sarasketa, Miguel Etxaniz

### PSE: 6

Jose Fernandez Lara, Julio Lapeyra, Alvaro Esteban, Roberto Aizpurua, M<sup>a</sup> Elena Piedra, Javier Lopez de Gereñu

### HB: 4

Serafin Basauri, Ramon Uranga, Angel Treviño, Eduardo Egia

### PCE: 2

Esteban Eguren, Jose Javier Teruel

### EE: 1

Gotzon Sarasua

1983AN

## Jesus Ma Agirre

### EAJ-PNV: 9

Jesus M<sup>a</sup> Agirre, Jose Luis Perez Sarasketa, Roberto Larreategi, Carlos Gonzalez, Idoia Izagirre, Emilio Azurmendi, Ramon Alonso, Antonio Agirresarobe, Jesus M<sup>a</sup> Ugarteburu

### PSE: 8

Jose Luis de los Toyos, Jose Fernandez Lara, Ricardo Herranz, Jose M<sup>a</sup> Mujika, Ramon Rodriguez, M<sup>a</sup> Elena Piedra, Iñaki Arriola, Ana M<sup>a</sup> Alberdi

### HB: 3

Emilio Aiastui, Iñaki Osoro, Eduardo Mugerza

### EE: 1

Juan Sanchez Vallejo

# EIBAR

## VOCACION PARA ALCALDE 3 - IV - 79



José Fernández, PSOE



Gotzon Sarasua, E. E.



Mikel Larrañaga, PNV



Ana González, EKA

A. Berasoluce, EMK



Esteban Iguren, P. C.



Mikel Usobiaga, LKI

V. Merino, P. T.



Serafin Basauri, H. B.

REVISTA POPULAR

II EPOCA  
MARZO DE 1979

NUM. 212

Precio: 20 Ptas.

Don Pedro Zelaiak zuzentzen zuen "Eibar" aldizkariak 1979ko martxoan kaleratutako azalean arreta berezia eskaini zieten demokrazian egingo ziren lehen hauteskundeei. Aurkeztutako hautagaiak ez ziren gutxi izan.

# Udal Hauteskundeak demokrazian

1987AN

## Aurora Baskaran

### PSE: 7

Aurora Baskaran, Jose Luis de los Toyos, Iñaki Arriola, Marciano Talan, Santiago Gorrotxategi, Ramon Rodriguez, Alvaro Esteban

### EA: 4

Fco. Javier Unzeta Barrenetxea, Jose Arriola, Jesus Rementeria, Lourdes Urzuriaga

### HB: 4

Emilio Aiastui, Julen Ereñaga, Milagros Arizmendi, Agustin Molinero

### EAJ-PNV: 3

Jesus M<sup>a</sup> Ugarteberu, Emilio Azurmendi, Jose Manuel Egialde

### EE: 2

Ion Ioseba Garaizabal, Juan Sanchez Vallejo

### AP: 1

Jesus M<sup>a</sup> Eguino

1991N

## Aurora Baskaran

### PSE: 8

Aurora Baskaran, Iñaki Arriola, Jose Luis de los Toyos, Marciano Talan, Jose Mediavilla, Roberto Etxaburu, Jose Luis Vallés, Isabel Fernandez Lara

### EAJ-PNV: 5

Jose Antonio Arkotxa, Jesus M<sup>a</sup> Ugarteberu, Roberto Larreategi, Victor Manuel Caño, M<sup>a</sup> Isabel Azpiazu

### HB: 4


Emilio Aiastui, Ibon Muñoa, Iñaki Amuategi, Milagros Arizmendi

### EA: 3

Jose Luis Telleria, Mertxe Garate, Juan Luis Cristobal, Javier Zorrakin, Asier Albizu, Mertxe Garate, Elena Ibañez, Oskar Alberdi, Jon Urresti

### PP: 1

Jesus M<sup>a</sup> Eguino



Francoren ondorengo aurreneko korporazioetan parte hartu zutenak geroago  
ere bildu izan dira sasoi hartako kontuak gogoratu eta partekatzeko.  
Goian, Azitain jatetxeen; behean Zatixa soziedadean.



# Udal Hauteskundeak demokrazian

1995ean

## Iñaki Arriola

### PSE-EE: 7

Iñaki Arriola, Jose Mediavilla, Antxon Gutierrez, Miren Gallastegi, Jose Luis Vallés, Miguel de los Toyos, Manuel Estanislao

### EAJ-PNV: 5

Luis Alberto Aranberri Amatiño, Jose Maria Kruzeta, Jesus Mari Ugarteburu, Elena Ibañez, Garbiñe Gisasola

### HB: 3

Iñaki Amuategi, Jaione Intxaurreaga, Aitor Hdez. Atorrasagasti

### PP: 3

Regina Otaola, Milagros Urizar, Ramon Gomez

### EA: 2

Juan Luis Cristobal, Mertxe Garate

### IU-EB: 1

Victor Romero

1999AN

## Iñaki Arriola

### PSE-EE: 9

Iñaki Arriola, Jose Mediavilla, Mari Jose Telleria, Miren Gallastegi, Miguel de los Toyos, Jose Luis Vallés, Arcadio Benitez, Nerea Alustiza, Montse Fernandez

### EA/EAJ: 6

Javier Zorrakin, Asier Albizu, Mertxe Garate, Elena Ibañez, Oskar Alberdi, Jon Urresti

### EH: 4

Iñaki Amuategi, Emilio Aiastui, Jon Azkune, Mikel Zarzabe

### PP: 2

Regina Otaola, Carmen Larrañaga



Aurora Baskaran. 1987-93. Bera da emakume bakarra Eibarrek izan dituen 236 alkateen artean.



Francoren ondorengo Eibarko bost alkateak. Jesus Mª Agirre (1983-87), Iñaki Arriola (1993-2008), Aurora Baskaran (1987-93), Miguel de los Toyos (2008-21) eta Mikel Larrañaga (1979-83). Jon Iraola (2021-23) seigarrena da.

# Udal Hauteskundeak demokrazian

2003AN

## Iñaki Arriola

### PSE-EE: 11

Iñaki Arriola, Miguel de los Toyos, Mari Jose Telleria, Miren Gallastegi, Jose Luis Vallés, Arcadio Benitez, Nerea Alustiza, Ana Rodriguez, Carmen Retenaga, Miguel Lopez de Gereñu, Benjamin Atutxa

### EAJ/EA: 7

Julian Eraso, Mari Jose Arakistain, Oskar Alberdi, Elena Ibañez, Aitor Alberdi, Mertxe Garate, Javier Zorrakin

### PP: 2

Regina Otaola, Carmen Larrañaga

### EB-IU: 1

Elixabete Gomez Laconcha

2007AN

## Iñaki Arriola

### PSE-EE: 11

Iñaki Arriola, Miguel de los Toyos, Mari Jose Telleria, Miren Gallastegi, Jose Luis Vallés, Arcadio Benitez, Nerea Alustiza, Ana Rodriguez, Miguel Lopez de Gereñu, Carmen Retenaga, Benjamin Atutxa

### EAJ: 5

Aitor Alberdi, Eva Juez, Javier Zorrakin, Mari Luz Balenciaga, Karlos Gonzalez

### EB-Aralar: 2

Elixabete Gomez Laconcha, Aitor Baroja

### EA: 2

Mertxe Garate, Jesus Rementeria

### PP: 1

Regina Otaola

Iñaki Arriolak bere azken legegintzaldiaren erdian  
pasatu zion alkatearen makila Miguel de los Toyosi.  
Karguan urte gehien eman dituzten alkateak dira.



2019an osatutako udal korporazioa, Miguel de los Toyos alkate zela.

# Udal Hauteskundeak demokrazian

2011N

## Miguel de los Toyos

### PSE-EE: 9

Miguel de los Toyos, Mari Jose Telleria, Arcadio Benitez, Esther Kareaga, Eneko Andueza, Miren Gallastegi, Jose Luis Vallés, Ana Rodriguez, Pedro Escribano

### Bildu: 6

Igor Aldalur, Josu Cristobal, Soco Baskaran, Leire Abanzabalegi, Nerea Castro, Begoña Vesga

### EAJ-PNV: 4

Eva Juez, Iñaki Zuloaga, Mari Luz Balenciaga, Javier Zorrakin

### PP: 2

Carmen Larrañaga, Sofia Vazquez

2015EAN

## Miguel de los Toyos

### PSE-EE: 10

Miguel de los Toyos, Alberto Albistegi, Idoia Sarasketa, Patxi Lejardi, Patricia Arrizabalaga, Pedro Escribano, Ana Telleria, Arcadio Benitez, Marisa Larrauri, Eneko Andueza

### EH-Bildu: 5

Igone Lamarain, Josu Cristobal, Leire Abanzabalegi, Gorka Errasti, Ana Fran Astigarraga

### EAJ-PNV: 5

Eva Juez, Jaime Lopez de Gereñu, Mertxe Garate, Josu Mendikute, Elena Ibañez

### Irabazi: 1

Itoitz Garcia-Anton



Pandemiak markatutako sasoi berezia egokitu zitzaion Jon Iraolari kargua hartzerakoan.  
Miguel de los Toyosen lekukoa hartu zuen Eibarko gaur egungo alkateak.



Aurten osatutako udal korporazioa, Jon Iraola alkate dela.

# Udal Hauteskundeak demokrazian

2019AN

## Miguel de los Toyos

### PSE-EE: 9

Miguel de los Toyos, Idoia Sarasketa, Alberto Albistegi, Esther Velasco, Patxi Lejardi, Patricia Arrizabalaga, Jon Iraola, Ana Telleria, Pedro Escribano

### EAJ-PNV: 6

Josu Mendikute, Alberto de la Hoz, Mertxe Garate, Elena Ibañez, Jon Perez, Amaia Albizu

### EH-Bildu: 5

Gorka Errasti, Igone Lamarain, Miren Baranguan, Jose Angel Gimare, Ana Fran Arrizabalaga

### Elkarrekin-Podemos: 1

Isabel Fdez. Pejenaute

2023AN

## Jon Iraola

### PSE-EE: 8

Jon Iraola, Sonia Archeli, Andoni Zabala, Vanesa Hortas, Alberto Albistegi, Ana Telleria, Patxi Lejardi, Patricia Arrizabalaga

### EH-Bildu: 6

Arantza Mata, Gorka Errasti, Nerea Barruetabeña, Julian Diaz, Hiart Cabrera, Leire Alberdi

### EAJ-PNV: 6

Josu Mendikute, Amaia Albizu, Elena Ibañez, Mertxe Garate, Jon Perez, Alberto de la Hoz

### Elkarrekin-Podemos: 1

Isabel Fdez. Pejenaute



Mikel Larrañaga demokraziako lehen alkatea eta Jon Iraola gaur egungoia,  
iaz lehenengoak kaleratutako euskararen aldeko Bandoaren  
40. urteurrena betetzerakoan udaletxean egindako ekitaldian.  
Oihartzun zabala izan zuen sasoi hartako bandoak.

# Alkate txikia

## ALEJANDRO TELLERIA ESTALA

Alejandro Telleria Estala, "Ali", Pagaegi ize-neko etxeen jaio zen, 1876ko irailaren 24an. Gurasoak, Manuel Telleria eta Rosa Estala soraluzetarrak, Eibarren finkatu ziren eta bost seme-alaba izan zituzten; Alejandro zen nagusiena. "Alkate txikixa" gaitzizenez eza-gutzen zuten bere garaiko eibartarrek

Alejandrok kezkaz eta ametsez betetako herri batean iragan zituen haurtzaroa eta gaztaroa. Ideologia sozialistakoa eta gazte-gaztetatik urte haietako borroka sozial eta politikoan murgildua, Akilino Amuategiren lagun handia zen. "Ile beltza, txikia,izar sa-rria, begi grisak, bekain iletsuak", halakoxea omen zen Telleria. Hortik "Ali Txikixa" edo "Alkate txikixa" gaitzizena. Oso dotore jan-zten zen beti eta sonbreroa eramatzen zuen.

1920ko apirilaren 1ean udal hauteskundeak izan ziren eta sozialista eta errepublikarrak irten ziren garaile. Udalbatza hamazazpi zi-negotzik osatu zuten, tartean zela Alejandro Telleria sozialista, herriko alkate izendatua izan zena. Sozialisten artean, bestek beste, José Guisasola, Cándido Arrizabalaga, "Apotxiano", Francisco Echeverría, Florentino Bueno eta Alberto Mendiguren zeuden; errepublikarren artean José María Ojanguren, Feliciano Astaburuaga, Ciriaco Aguirre, Francisco Arizmendi... Eusko Alderdi Jeltzaleko zinegotzi bakarra zegoen, Antonino Al-dazabal. Alejandro Telleria aukeratu zuten alkate. Bere burua kargurako gai ikusten ez bazuen ere, herriaren alde gogor lan egingo zuela zin egin zuen, beti interes publikoei be-gira eta justiziaren alde.

Telleriak oso garai gorabeheratsua eta ga-tzkaz betea bizi izan zuen lehenengo agin-taldian, bai maila politikoan bai ekonomiko



eta sozialean: Spainia Marokoren kontrako gerran sartuta zegoen, eta Eibarren mani-festazio handiak egin ziren haren aurka.

Bestalde, 1920ko irailaren 15eko Errege Dekretuak, armen fabrikazio eta salmentaren interbentzioari buruzkoa, gogor jo zuen euskal armagintza, eta, ondorioz, baita Eibarkoa ere; gainera, Eibarren, greba luze bat egiten ari ziren, armagin gremio guztietara zabaldu zena. Patronalaren oposizio gogorrak nego-zazioak eragozten zituen, eta Telleriak hain-bat bilera antolatu zituen patronalaren eta langileen artean akordio batera iristeko. Uda-lak, halaber, Iursailak laga zituen doan Armen Probaleku handitzeko, armagintzaren jar-duera sustatze aldera.



Alejandro Telleria. Hirutan izan zen alkate: 1920-21, 1931-34 eta 1936-37.  
Goian, Eibarko industria gizonekin.



Untzaga plazan eskaintzen ziren kontzertuetako bat, kiosko zaharraren bueltan  
musika-zale pilo bat bilduta. Kioskoa gerratea hasi aurretik Beasainera eraman zen.

# Errepublikaren aldarrikapena

## EIBAR LEHENA IZAN ZENEAN

Errepublikar eta sozialisten arteko indar erlazioa parekatua zegoen Eibarren -zortzina zinegotzi talde bakotzak-, baina sozialistek hartu zuten Errepublika aldarrikatzeko inizitiba. Madrildik eta Donostiatik heldutako aginduei jarraituz hautatu berri eta sozialisten buru zen Juan de los Toyosek eman zuen erregimen berria aldarrikatzeko lehenengoko urretsa. Berak jo zuen goizeko 4etan errepublikarren buruarengana, Domingo Kortazarrengana, esanez lehenbailehen bildu behar zirela. Era berean, herriko gauzainen bidez, De los Toyosek gainontzeko hautetsiak deitu zituen Casa del Pueblo-n biltzeko. Han azaldu ziren goizeko 5etan, eta buruzagi sozialistak egoeraren berri eman zien. Udaletxera joan aurretik, bildutakoek ardurak banatu zitzuten eta Errepublika aldarrikatzea erabaki zuten.

Goizeko 6ak eta 6:30ak artean, aldamenean zegoen udaletxera abiatu ziren eta Udal berria ofizialki osatu ostean -Alejandro Telleria jarri zen alkate-, Errepublika aldarrikatu zuten. Horixe adierazi zuten balkoi nagusian hiru koloretako bandera eskegiz. Plazan bildutako jendearen aurrean egin zuten ekitaldia. Tokian tokiko aldarrikapenek aldaketa orokorra ekarriko zutela uste zen, eta Eibarrera iritsitako agindua -Errepublika aldarrikatza, alegia- beste herrietan ere betetzen ari zela pentsatzen zuten goiz harten Eibarko udaletxearen zeudenek.

Ordu luzetan Eibar izan zen aldarrikapen errepublikarra piztu zen leku bakarra. Arratsaldean, ordea, Bartzelonak segitu zion Eibarrek hasitako bideari; Lluís Companysek udaletxetik eta Frances Maciasek San Jaume jauregitik, bandera errepublikarra zabaldu eta Kataluniako Errepublika aldarrikatuz.

Eibarren, apirilaren 14ko arratsaldean, garai-pena ziurtatuta zegoela jakitearen lasaitasunarekin -ordurako Madrilgo Puerta del Solen bertan ere jendetza bildu zen II. Errepublikaren etorrera ospatzeko-, bigarren elkarretaratzea egin zen udaletxearen aurrean. Alfonso XIII izeneko errotuluaren gainean, Errepublikaren Enparantza idatzi zuten xafla batzuen bidez. Erregea oraindik Madrilen zegoen, baina berehala hartu zuen erbesterako bidea, Cartagenatik Marseillaraino.

Plazaren izendapena aldatzeko unean, Juan De los Toyosek eta beste batzuek herriz herri eta aldarriz aldarri hedatzen ari zen Errepublikaren berri eman zieten bertan bildutakoei. Ilunabarrekin, antzeko manifestazioak orokortu ziren Espainiako Estatu osoan. Sasoiko La Marseillaise, Gernikako Arbola, Riegoren Himnoa eta beste zenbait ereserki errepiatzen zitzuten manifestariekin bandera errepublikarra astinduz, eta festa nagusitu zen nonahi. Arrazoi osoz, urte batzuk geroago, honela idatzi zuen **Toribio Altzaga** sozialista eibartarrak erbestetik: “*Eibarko ur ttantxa horrek Madrilgo gertaerak azkartu zituen, urrets batzuen dardar apalak mendiko elur jausia sorrazten duen legez*”.

Espainiako Gobernuak berak **Hiri txit eredugarri** izendapenarekin ohoratu zuen 1931ko maiatza hasieran, Marcelino Domingo, Miguel Unamuno, Indalecio Prieto eta Gonzalo Queipo de Llano lekuko zirela.

Noski, 1936ko Gerran, **frankistek** berehala **kendu zioten titulua** Eibarri, “Fronte Populararen eta euskal nazionalista traidoreen eskuetan gelditzen zen (Gipuzkoako) azken herriari”, hain zuzen. 1937ko maiatzaren 3an, zinegotzi frankistek “aho batez Errepublikak emanikoa ezabatzea” eskatu zuten.



1931-04-14an plazaren izendapena ere aldatu zuten.



\*Eibarko Udal Artxiboa  
Archivo Municipal de Eibar

1931-05-03. Eibarko Udalean Alejandro Telleria alkatea eta zinegotziak ongietorria ematen Miguel de Unamuno, Indalecio Prieto, Marcelino Domingo eta Queipo de Llano generalari.

## 1754. urteko ordenantzak

Ondorengo testua **Eibar.ORG**-tik hartutakoa da. Bertan **Imanol Trebiño** elkarteko horretako partaideak berari egitea egokitu zitzaion XVIII. mendeko euskarazko dokumentu baten azterketa historikoaren ondorioak argitaratu zituen. Dokumentu horretan Eibarko Udalak kaleratutako ordenantzak aztertu zituen, eta herrian sasoi hartan egiten ziren elekzioak, erakunde eta karguak, eta alkate izateko baldintzak tratatzen dira.

### ELEKTOREAK ETA ELEKZIOAK

Elektoreak, hau da, udalerriaren karguen hautaketa egiteko eskubidea duten auzotarrak, laugarren ordenantzan aipatzen zaizkigu eta gaur egun harrigarri den erantzukizun batekin "(...) egiten badabe *elecino charric*, eta onec (elektoreek aukeratutako alkateak, erregidoreek, sindikoek eta) izatten badabe *quiebraric*, edo jatten *badi tube errico errentiac*, *electторiac eurac yzan biaco dabela fichadore*, da abonadore, da pagau izan biaco dabela aren faltta *gustichac*

*zergaitterren errichac es ttabela bihar perjui-cioric, es quiebraric, da es ttabela pagauco elecctoriaren culparic, berac baiño, da contuban egon ditiala*". Izan ere, elektoreak ez dira, ez, herriko jende guztia.

Orduko Eibar hark 1747an 340 auzotar zituen, horietatik 242 auzotar hauteslegai edo "vecino concejante"ak, alegia, hautesle izateko eskubide politikoa zutenak, eta 98 bestelakoak. Baina auzotarrak, vecinos edo voisins, ez ziren denak, ezta gutxiago ere. Auzotar kategoria izateko herrian etxea eduki eta bertan bizi eta herriaren gastuak ordaintzen lagundu behar izaten zen. Ez dugu bizi-lagun kopuruaren daturik, baina Gregorio de Mujicak aurreko eta ondorengo urteetaz ematen dituen datuen proportzioak ikusita biztanleena auzotarrena baino bost edo zortzi bider handiagoa zela ikusten da; beraz, 1.700 eta 2.700 biztanle inguruko herria zen hura, horietatik hirian bertan hiruren bat inguru baino ez zen bizi, 600-900 lagun gorabehera, eta besteak, gehienak, auzoetan bizi ziren, Aginagan, Akondian, Otaolan, Arraten, Maltzagan eta sakabanatuta. Biztanle eta auzotarren arteko aldea nabarmena da, baina oraindik beste jauzi bat ere badago: auzotar eta hautesle edo elektore izatearen artean dagoena.




Aldatzeko dorretxea.

### Untzagako dorreko aurrealdea.

Elekzioak era bitxi batez egiten ziren sasoi hartan; ez ziren guztiz finkoak baina prozedura nahiko antzekoa mantentzen zen toki eta urteetan zehar. Badakigu zelan egin ziren Eibarko 1651ko hauteskundeak: sindikoak berak egoki ikusten zituen hiru pertsona aukeratzen zituen, hiru elektore horiek gero zazpi herritar aukeratu behar zituzten eta zazpi horien artean, zozketaz, udalerriko ofizioak beteko ziren, paperetan izenak jarri eta banan banan atera. Lehena alkate izango zen, bigarrena alkatearen tenientea, hirugarrena sindikoa, laugarrena sindikoaren tenientea, bosgarrena eta seigarrena erregidoreak eta zazpigarrena erregidoreen tenientea. Ez dirudi mende osoa pasa eta sistema hau asko aldatuko zenik. Halako sistema, elektore gehiagorekin, Donostiarako 1511n asmatu eta laster herri askotara zabaldu zen, XVIII. menderaino iraun zuelarik.

Gainera, sasoi batean behintzat, Eibarren alkatea izateko txandaka aukeratzen ziren kale-tarrak eta baserritarra. 1600. urtean agintaldi batean alkatea baserritarra izan bazen, hurrengoan kaletarra izan behar. Urte horretan elektoreak sei ziren, hiru baserri aldeetako hiru demarkaziotako baserritarra eta hiru kale aldeko hiru kaletar. Sei elektoreek pertsona bana aukeratzen zuten, kaletarrek baserritarra aukeratzu eta baserritarrek kaletarra, aukeratutako sei horien artean zozketa egin, alkatea zegokion tokikoa izan zedila zainduz (itxura denez, akta bera jasotzen duen eskribaua izan zen 1600. urte horretako alkate aukeratua) eta horrelaxe betetzen ziren postuak, erregidoreak alkateak berak aukeratzen zituelarik. Hurrengo urteetan sistema horrek aldaketak izango ditu, baina ez nabarmenak, kaletar eta baserritarren arteko txandak mantendu egingo dira eta.



Eibarko kasua ez zen salbuespena, Lekeitioan marinel eta lehorrekoen artean banatzen ziren, bi mendean zehar alkate bi zeuden batera, bat talde bakoitzean, eta 1733rako alkate bakarra aukeratuko dute, baina elektoreak, sindikoak eta erregidoreak erdizka hautatuz. Errigoitian, Elorriion eta Mungian, Eibarren legez, kaletar eta baserritarren artean banatzen ziren.

Halako prozedura bat, tokian tokiko zehaztasunekin, zehatz-mehatz kontatuta, euskaraz jaso zen Tolosako 1874 eta 1876 bitarteko ordenantzetan, II. Gerra Karlista zela-eta, eta karlistek Tolosa euren kontrolpean zutela, udal hauteskundeak sistema "foralaz" antolatu nahi izan zituztenean.

### ERAKUNDE AGINTZAILEAK ETA KARGUAK

Udalerritako erakunde agintzaile zaharrena kontzeju irekia da, baina honek funtzionatzeko herrian biztanle gutxi izatea eskatzen du; herriak jendeztatzen direnean kontzeju itxira pasatuko da, talde batek bere herrikide guztiak ordezkatuz. Urteak pasa eta kontzeju itxi hori udalerriko ofizial (herritar importante) batzuen kontrolpean geratuko da, eta antolaketa sistema berri hori erregimentu izenez ezagutuko dugu. Kontzejua ez da desagertzen horiek nagusitzen direnean, baina funtziogutxiago beteko ditu eta gutxiagotan bilduko da.

Erregimentua gobernu organoa da, alkateak presiditzen du, erregidoreak bertako partai-deak dira, eta egon daitezke beste kargu batzuk: hala nola juratu nagusiak edo "jurado mayor"rak eta fielak. Bakarrik alkate eta erregidoreak badaude, alkatea gainbegiratzaiak nagusia izango da; eta erregidoreak herriko interesen zaindariak, herriko libertateak, privilegioak, ondasunak eta diru sarrerak eta gastuak zainduko dituztenak izango dira. Erregidoreak, alkatearekin batera, erantzule gisa agertzen dira hainbat ezbehar gertatuz gero: eskribaua hiltzen bada alkateak inbentarioa egin behar du Diputaziora berehala bildatzeko; eta erregimentua, kontzejua, fakultatu gabe, zerga moduan dirurik hartuko

balu, beraien eta euren hazienden kontra jo ahal izango litzateke. Beste lan batzuk ere izan zitzaketen, zergak jasotzen eta merkatitarzarako tasak, pisuak eta neurriak zaintzen, esate baterako.

Erregimentua ere bazituen funtziio judizial batzuk, alkateak zituen hor eginahal gehienak; baina, zenbait gertaeraren aurrean, hala nola erregimentua berak sortutako arauen urraketan, bere barruko arazoetan edo udalerriko elekzioetako sobornoetan eta, erregimentua zen eskudun. Halakoetan modu kolegiatuan eratzen zen eta bere presidenteak alkatea zen.

1754ko testu horretan, kontzejua eta erregimentua agertzeaz gain, alkatea -behin alkate ordinarioa esaten da-, erregidoreak, eskribaua eta sindikoak ere aipatzen dira. Eskribaua eta sindikoa erregimentutik kanpoko ofizioak dira: eskribauaren lan ezaguena aktak jasotzea zen; sindikoaren lana, berriz, bere herri bereko erakundeetatik kanpo herriaren interesak ordezkatzea zen, epaitegietan esate baterako, eta Eibarren tesorero lana ere beteko du. Horrez gain, 1757an aguazil bi zeuden, hiru 1759an, eta euren funtzioa poliziarena zen.



Okamika etxea  
eta plaza berria.

## ALKATE IZATEKO BETEBEHARREKO BALDINTZAK

Kargu hauek okupatu ahal izateko zenbait betebehar zeuden. Alkate izateko, besteak beste, onraua, hidalgoa, aberatsa izan eta erraizak eduki behar zen. Ondratuak eta hidalgoak ia denak ziren, aberatsak gutxiago. Eskubide politikoak izateko zerga batzuk pagatu behar ziren, beren lurren balioaren arabera; azken batean herriko agintaritzan parte har zitekeen erakundearren mantuan laguntzen zen neurrian. Gutxi pagatzen zutenek bazuten eskubidea asanbladetan eta elekzioetan parte hartzea, eta gehien pagatzen zutenek eurek bakarrik bete zezaketen erregimentuaren kargu bat. Sistema horretaz posible zen elektore izateko behar zen kontribuzio fiskala ez hain txikia eskatzea eta horrekin gehiago murriztea elektoreen taldea; Bergaran, esate baterako, 1680an auzotar hidalgoen %35'4 zen bere eskubide politiko osoen jabe. 1754ko testuan "erraizak edukitza" aipatzen bada ere, ez da esaten horiek hirian edo mendian izan behar ziren, Eibarren alkate izateko txandaka aukeratzen zirelako kaletarrak eta baserritarrok; baina ez zen herri guztietan horrela izaten, ez zen hain arraoa erraizak hiri barruan izan beharra eskatzea, hots, kaletarrak izatea benetako agintzaileak.

Alkate izateko "*idacortten da escribiken*" ere jakin behar zen. Hori ere bazen muga bat. Herri handiek, Donostiak eta Tolosak, 1530ean eta 1532an ezarri zuten baldintza hori, eta Gipuzkoako alkate guztieitik 1571tik aurrera eskatuko zaie, baina herri txiki askotan oso jende gutxi edo inor ez zegoen alfabetatua, eta horrek XVII. mendearren hasieraraino atzeratuko du bere erregulazioa halako toki frankotan. Herri handiagoetan bazegoen jende gehiago, baina Eibarren bertan 1665ean bere prokudore sindikoa ez zen Gipuzkoako Juntaren parte hartzea onartua izan irakurtzen eta idazten ez zekielako. 1708an Juntan herri batzuk alkaterako alfabetatugabeak aukeratzen



Kontaderokua  
etxea.

dituztela salatzen da eta 1742an Juntek Zaldi-biako kontzejuari isuna jarriko dio alfabetatugabeko bat alkate aukeratzeagatik. Ikusten da, bada, halakorik eginez gero aipatutako dokumentuan jasotako bi mila marabedien multa ez dela alperrik ipinita.

*"Es tteila izan (...) Erregue maggestatiaren errejimenduban serbicen dabenic"* ere irakurten da bertan. Hori 1675eko ordenantza probintzial batek ezarri zuen eta arrazoi bi zituen bere atzetik: batetik, halako jendeak gestio txarrik burutuz gero juzgatu behar bazen, ez zezala alegatu jurisdikzio militar pean egoteagatik ez zegoela alkatearen jurisdikzio pean, eskumen kontu bat zen hortaz; baina, bigarrenez eta batez ere, soldadu apalei udalerraren ofiziala izateko bidea ixteagatik.

Ofizio txarrik ez izatea ere eskatzen da testu horretan, hor dendariak, arotzak, ferratzialeak eta sartzen zirelariak. Agindu hori 1686tik aurrera eskatzen zen, donostiarrek hala eskatu zutenean Juntaren. Erreinuaren beste lurraldeetan sobran lego ke halako betebehar bat hidalgoak eskatzerakoan, baina Gipuzkoan denak zirenez aitonen seme, baziren ofizio umilak betetzen zituztenak ere, eta eskubide politikoak murrizteko formula ona zen hori.

## Herriko beste ilustre

Alkateez aparte, Eibarrek izen handiko hainbat apezpiku, aholkulari, gobernadore, zaldun eta kapitain izan zituen, “bake eta gerretako sasoietañ” jardun zutenak, gehienetan Gaztelako erreinuari zerbitzen, Karlos V.na enperadorearen denboretatik aurrera.

**Fray Ignacio de Mallea** frantziskotarra Paraguaiko apezpikua izan zen, eta baita Rio de la Platako ere gero, Perun. Andres Martinez de Mallea eta Maria Osoa de Loyolaren semea zen. Ignacio de Loyola Jesusen Konpainiako (jesuitak) sortzailearen iloba ere bazen; eta baita Martin Garcia de Oñaz Txileko gobernadorearen lehengusua ere. Bitan eman zion munduari itzulia eta Ameriketan Asunciongo Sinodoa antolatu zuen, indigenak babesteko neurriak hartzeko asmoz egin zena eta, aldi berean, Elizaren lehenengoko doktrina sozialtzat hartu dena.

**Fray Andres de Ubilla** Nueva Espanako Chiapaseko apezpikua izan zen. Eibarren jaiotakoa bazen ere, txikitik Mexikon hazi zen eta bertan hartu zituen habituak. Gero Eibarrera bueltatu zen, baina azken urteak Ertamerikan egin zituen batez ere. Aipatutako apezpikutzaren agintean 1592an hasi eta 1601era arte iraun zuen. **Fray Esteban**

**de Alzua**, hau ere frantziskotarra, Kuba uhar-teko apezpikua izan zen.

**Miguel de Ibarra**, Eibarren 1550ean jaioa eta Ekuadorreko Quito 1608an hildakoa, Quito bertako Audientziako presidentea izan zen, han ehungintza industriari hasiera emateaz gain. Legeetan lizenziatu zen Salamanca 1582an eta Felipe II.ak Granadako erreinuko entzule izendatu zuen 1591n Peruko Santa Fen. **Juan de Ibarra** bere anai nagusiena Erregearen idazkaria izan zen.

Zaldunen artean, **Domingo Martinez de Orbea e Ibarra** dago, Santiagoko Ordenaren barruan; horrez gain, Carlos V.aren diruzain nagusia ere izan zen. Bere anai **Juan de Orbeak** diruzain nagusi kargu bera izan zuen Aragoiko erreinuan. **Maxin de Orbea** hirugarren anai Bernardino de Mendoza Espaniako Galeretako nagusiaren tenientea izan zen, Solerako Enpresaren izenean.

**Pedro Gomez de Guevara** zaldunak, bestalde, Orbeako jauregia eraikiko zuen XVI. mendean. **Juan Lopez de Artxuloeta** Indietako Armadako jeneralia izan zen “Flor de la Mar” galeoian. Eta Uni de Ibarra kapitainak ere lan asko egin zituen erreinurako, Vienan hil aurretik.

## ORBEA, IBARRA ETA ISASI

Familia horietakoak dira gure herriko ilustre asko eta asko. Eurekin batera, Ignacio Mallea, Esteban Alzua, Andres de Ubilla, Unzueta... maila handia izan zuten XV. eta XVII. mendeen arteko orduko gizarteetan, batez ere Madrilgo gobernuen asuntoekin lo-

tutako gauzetan. Ez ziren gutxi izan Eibarren jaiotako sasoi hartako apezpiku, esploratzaile edo konkistadore izango zirenak, ahaztu barik Carlos V.na eta Felipe II.aren idazkariak izatera iritsitakoak. Ez da izenik falta, ez, orduko eibartarren artean.

Miguel de Ibarra  
Ekuadorreko Audientziako  
presidentea izan zen.

Quito (Ekuador).



Francisco de Ibarra  
erregeak Flandesen  
zituen armada  
guztietako komisario  
nagusi izan zen,  
Mexikoko Durango  
sortzeaz gain.



### ORBEATARRAK

Familia garrantzitsuenetako XVII. mendean. Bi baserri izan zituzten: Azaitandik gertu ze-goen Orbe (edo Orbea) eta beste bat Agi-naga auzoan. Familiako **Domingo de Orbea** Santiagoko Ordenaren zalduna izan zen eta gerra-aholkularia. **Juan Bautista de Orbea y Urquiza** Felipe II.a erregearen idazkaria izan zen XVII. mendeko lehen laurdenean. Izen handiena eskuratu zuena, dena den, **Martin de Orbea** izan zen, 1591ko ekainaren 20an jaiotakoa. Espaniako erregearen

zerbitzari izan zen galeretan, alferez kargua lortzeraino, eta 1619an Ordizian egindako Batzarretan bere izena proposatu zuten itsaso eta gerrarako kapitaina izateko. Handik zazpi urtera, 1626an Getarian egindako Batzarretan Gipuzkoako eskuadrako jeneralia izateko proposatu zuten. Azkenik Santiagoko Ordenaren zaldun izendatu zuten 1627an; eta handik lau urtera, 1631n, Nueva Espa-ñako lur eta flotako bost galeoietako almi-rante izendatu zuten.

### IBARRATARRAK


**Francisco de Ibarra** Gaztelako Santa Cruz de la Zarzako Ordenaren komendatore izen-datu zuten, erregeak Flandesen zituen ar-mada guzietako komisario nagusi titluarekin batera. Aipatutakoez gain, Felipe II.a erregearen Gerra Kontseiluko kide izan zen. **Diego de Ibarra** bere semea militar ga-rrantzitsua izan zen Nueva Galicia probin-tzia koloniarra konkistatzerakoan: Nayarit, Jalisco, Aguascalientes eta Zacatecas daude bertan. Gainera, anaidetasun asko-tako kide izateaz gain, "kulto marianoa bul-tzatu zuen Zacatecasen, eta limosnetan oso eskuzabala izan zen". **Francisco eta Martin Lopez de Ibarra** bere ilobek Nueva Vizcaya konkistatu zuten, gaur egungo Durango, Chihuahua eta Sinaloa estatuak hartzen zi-tuen lurra. Bietatik Franciscok izan zuen arrakasta handiena, batez ere Ana bere le-

hengusinaren Luis de Velasco senarrari esker, azken hori Mexikoko erregeorde bai-tzen. Franciscok Durango, San Juan Bau-tista de Carapoa eta San Sebastian -gaur egungo Concordia- hiriak sortu zituen.

Beste Ibarratar batek, **Miguel de Ibarra**, Bogotatik 56 kilometrora dagoen Fomeque hiria sortu zuen Kolonbian eta, 1599. urtearen amaieran, Quitoko Erreinuko goberna-dore eta kapitain izendatu zuten. Ekuadorrek izan zuen lehen agintaria ere bera izan zen, ordura arte Peruko Limatik agintzen baitzu-ten bertan. Eta lehenengoa izan zen Nueva EspaÑara iristen. Azkenik, **Esteban de Iba-rra Zugadi** Carlos V.a enperadorearen Gerra Aholkulariaren idazkaria izan zen eta Sajoniako Dukea preso hartzeko ekintzan parte hartu zuen.

Diego de Ibarra  
Mexikoko Nueva Galicia  
probintzia koloniarra  
konkistatu zuen,  
Zacatecas tarteant zela.

Zacatecas (Mexiko).



Martin de Orbea  
Spainiako erregearen  
zerbitzari izan zen  
galeretan, Santiagoko  
Ordenaren zaldun  
izendatu aurretik.



### ISASITARRAK

Errege Etxea zerbitzatu zuten gobernadore eta militarrak izan ziren gehienak. Marqueskuako jauregia izan zuten bizileku eta bertan bizi izan ziren Felipe IV.aren bi seme ere. Horrez gain, Espainiako errege-erreginen bisi-taldiak ere jaso zituen behin baino gehiagotan: Isabel II.a 1865ean, Maria Cristina 1887an eta 1908an, edo Alfonso XIII.a 1905ean. **Juan de Isasi Idiakez** Baltasar Carlos printzea Carlos III.aren semearen zerbitzaria izan zen; gero, alargundu ondoren,

apaiz sartu zen, Toledoko kanonigoa eta Pie de Conchako Kondea izaten amaitzeko. **Antonio Isasi Idiakez** 1603an hasi zuen bere karrera militarra Napolesek galeretan, eta kapitain izatera iritsi zen 1616an. Alcantarako Ordeneko zen eta Indietako galeoien gerra-aholkulari eta jenerala izan zen. **Jose Idiakez Isasi**, azkenik, Conchucos Peruko probintziako eta Indietako gobernadore izan zen, Calatravako Ordeneko zaldun izatearekin batera.

### MARKESKUA JAUREGIA

Guztiarekin, lehen seme gizonezkoa sasikoa izan zuen Filipe IV.ak, Frantzisko Fernando Isidro Austriakoa, zeina haurra zelarik, Juan Isasi Idiakez noble euskaldunaren zaintzaean utzi zuten erregeak eta Olivaresko Konde-Dukeak. Isasik Eibarko bere etxera (Marqueskua jauregira, orduan Isasiko Dorrea) ekarri zuen haztera **Frantzisko Fernando**, eta bertan lau urte bizi ondoren, 7 urte zituela hil zen. Ez dirudi Frantzisko Fernandoren heriotzak zalan-tzarik sortu zionik Filipe IV.ari Juan Isasik eman zion tratuaz, zeren, hain zuzen ere, Baltasar Karlosen irakasle eta zaindari izendatu zuen Isasi, 1634ko azaroaren 12an sinatutako aginduz. Bost urte zituela, beraz, Juan Isasi Idiakezen zaintzaean hasi zen bizitzen **Baltasar Karlos**. Lana ondo egingo zuen, erregeak Pie de Conchako bizconde izendatu baitzuen Isasi hiru urteren buruan (1637an), eta konde hurrengo urtean.

### ERREGEAREN ZERBITZARI

Ilustreen maila horretan kokatu daitezke bai Martin de Iñarra, Pedro Lopez de Iñarra, eta Juan eta Martin de Larreategi anaiak ere. **Martin de Iñarra** erregearen morroi izan zen Estatuko Idazkaritzan eta Infante karde-nalaren Kamara-idazkaria. **Pedro Lopez de Iñarra** Guadalajarako kanonigoa izan zen eta abate Toledoko Santa Leocadian...

Eta, **Larreategitarrei** dagokienez, **Juanek** erregearen zerbitzura jardun zuen bitartean, bere anaia **Martin** Gaztelako Kontseiluko ministroa izan zen.

Badira beste batzuk sasoi hartan pisua izan zutenak, batez ere armei lotutako zereginetan. **Juan Lopez de Aritxulueta** kapitaina Indietako Armadako jeneralia izan zen Carlos V.aren erregealdian. **Lazaro de Egigurenek** bere karrera militar bezala hasi zuen Flandesen eta Erregearen Armadako sargentu bezala amaitu zuen. **Albizuri kapitaina**, bestalde, Hegoaldeko itsasoetako Erregearen Armadako jeneralia izan zen; Hegoaldeko itsasoak deitzen zitzaion orduan Ozeano Barea edo Pazifikoari, lehenengoko esplorazioetan.

Baltasar Karlos  
Austriakoa.  
Juan Isasi Idiakozek  
bere irakasle eta  
zaindaria izan  
zen Markeskuan.



## MARKESKUA

**Isasi edo Markeskua Jauregia** Eibarko eraikin zibilen artean garrantzitsuenetako da. XVI. mendean eraiki zuten bera Martin Lopez Isasiren eta Domenja Orbearen aginduz. Garai hartako jauregi gehienak bezala, hiribildutik kanpo eraiki zuten, Ermuara zihoa bidearen ondoan. Apaingarri gutxi dituen eraikina da. Oinplano angeluzuzena eta lau isurkiko teilatua ditu. Sarreran dobelaz inguratutako arku erdizirkular bat dauka. Eraikinaren aurrealdean Isasi sendiaren armaria dago. Familia horretako kideek kargu garrantzitsuak izan zituzten goanean.

Isasi Jauregia duela urte gutxi zaharberritu zuten, eta **Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) egoitza** da egun. Hitzaldiak, doktoretza-ikastaroak... egiten dira bertan. Dena den, urte osoan zehar egoten dira jarduerak, ez bakarrik udan.

# Eibar Erdi Aroan eta Aro Modernoan

## XIX. MENDERA ARTE

Gaztelako Alfonso XI.a erregea izan zen 1346ko otsailaren 5ean Eibarri herri izateko eskumena luzatu ziona. Hala ere, ordurako bazegoen herria San Andres elizaren inguruau sortuta. Herri-agiria ematerakoan, gauzak aldatu egin ziren eta handik aurrera, herria eratzen joan, eta etxeak eta kaleak jaso ziren (Barrenkale, Elgetakale, Somera edo Txurio). Herri jaio berriak, zergarik eza eta askatasuna emanez, herria gidatuko zuen endorea edo alkatea izendatzeko ahalmena, etxaldeak eta beste gauza guztiak askatasun osoz saltzeko eta eroskeko gaitasuna eta bertako mendietako egurtzak erabiltzeko baimena zuen. Baita lur-gorriak aratu eta lantzeko eskubidea, eta hazidentzako herriko larreetatik belarra hartzekoa ere.



Elexalde etxeko ezkutua.

Hurrengo lau mendeetan, jaunxoen arteko liskarrek eta frantziarren erasoaldiek kalte handia egin arren, armagintza goratzen eta garatzen joan zen, Eibarko historian zeresan eta zerikusi handia izango duen lanbidea. Armagintzaren sustraiak edo gremio nagusiak hauexek ziren: kanoiginak, kaxaginak, txispaginak eta aparejuginak. Horrek mesede egiten zion produkzioari eta beharginen prestakuntzari, bakoitzak bere ofizio jakina izaten baitzuen. Gaztelako erregeek ez zuten arazorik izaten Deba arroaren azpiegitura horri esker armak eskuratzeko. Tailer txikiak ugarrizten joan ziren, eskopetak, arkabuzak, mosketeak eta fusilak egiten zituztenak. Egiten zena saldu beharra zegoenez, merkataritzak indar handia hartu zuen; merkatua zabaltzen joan zen, ez bakarrik Espanian, baita Amerika aurkitu berrian ere.

1766ko matxinadak -artoaren eta gariaren garestitzeak sortutakoak-, eta 1794. urtean Frantziako tropen sarrerak herria lurjota utzi zuten. Kontzejua, eskolak eta elizaren zati bat erre egin zituzten; 116 etxe galdu ziren auzoetan eta arrabalean. Karlisten gerrateek ere ez zioten onik egin herriari, Eibar liberala zelako. Lehenengo huelga edo greba deia 1897ko abuztuaren 6an izan zen Eibarren, Mexikoko Quintana y Hermanos etxeari eskopetak eta esmitzak egiten zizkion taileurreko beharginena. Etorkizunari begira, grebaldi hura erabakikorra izan zen sozialismoa herrian sustraitzeko orduan.



Esquilacheren zalapartak jarraipena izan zuen Gipuzkoan zehar bizi izan zen matxinadan. Urola inguruan hasi eta Eibarreraino iritsi zen.



Napoleonen soldaduek Eibar menpean hartu zuten eta, jendearekin lagun moduan agertu arren, alperrikakoa izan zen, eibartarrak frantsesei aurre egiteko eratu zen armadan sartu baitziren, Zaragozako frontean ere borrokatzu.

# Eibar Aro Garaikidean

## XIX. MENDETIK AURRERA

Antzinako gremioen jatorrikoak izanik, eibartarrek kooperatibaren sentimentua barnean zeramatzen. XIX. mendearren amaiera aldean ahalegin batzuk egin arren, 1920. urtean izan zen grebarik luze eta gogorrenaren ondoren sortu zen Alfa, beharginen kooperatiba legez sortu ere. Grebaren ondorioa izan zen Alfa. XX. mendearren hasiera zaila izan zen, eibartarrak sarri askotan gorriak pasatakoak izan dira, baina nazioarteko merkatuen gorabeheretik armagintzari min egin zioten harkoa izan da herriaren sasoirik gogorrenekoa. Hala ere, gizarteak sendo ziharduen lanean; ordukoak dira Naparreri etxea, Arrateko kolonia, Gaixoendako etxea, beharginen Zentroak, liburutegiak eta Armeria Eskola bera. Armeria Eskola izan zen Eibarko industria eraldatu zuten tailerdunen harrobi, armagintzaren bidetik aldendu eta metalgintzaren esparruko produktuetara zuzendu zen industria berriaren ernemuina.

1931ko goizaldean Eibar II. Errepublika aldarrikatzen esnatu zen; aurrena izan zen esnatu osoan. Errepublikak botere-banaketaren eraldaketa sakona ekarri zuen, ordura arte horrelakorik sekula izan ez zuten langileek boterera iristeko aukera eduki baitzuten. Bartzelonan Errepublika aldarrikatu zela jakin zutenean, eibartar guztiak plazan batu, Alfonso XIII izena handik kendu eta Plaza de la República jarri zioten. Errepublika aldarrikatu zuen lehenengo herria izateagatik, hiri eredugarri titulua jaso zuen Eibarrek.

1937ko apirilaren 26an hautsi zen hura, bombardaketa izugarriaren ondoren Mola jeneralaren tropek Eibar hartu zutenean, atzean ehundaka hildako utzi ondoren. Gerrateak suntsitu eta erre egin zuen Eibar; herriaren itxura goitik behera aldatu zen. 1940ko urriaren 8an, "Regiones Devastadas" delakoaren



Malleatarren ezkutua.

Zuzendaritza Nagusiak urbanizazio-proiektua onartu zuen, eta beste gauza askoren artean, Ego erreka tapatzea erabaki zuten, terreno gehiago edukitzeko asmoz.

Zaitasunak zaitasun, Eibar laster egokitzen bizi izatea tokatu zitzzion garai berri hartrara; industria dibertsifikatu zuen (bizikletak, autoendako piezak, etxeko tresneria...). Etorrikin ugari etorri zen herrira behar bila, industriaren gorakadaren deiari erantzunda. Biztanleria asko goratu zen. Hala ere, 1982-1983 urteetan berriro beherakada demasa jasan zuen herriak, petroleoaren krisialdiak gogor eragin zion-eta. Aldaketa politikoak, enpresa batzuk zuten babesak galtzeak, teknologia berrien falta eta eguneratzeko ezak krisialdi handia ekarri zuen. Orain, ostera, sektore askok eta askok -urte latz haien ahaztuta- gora egin dute: makina-erramintak, automozioak, eraldaketa-industriek, teknologia berriek... Lehena eta oraina batzen dituen herri honetan oraindik bizirik diraute eskopetak eskuz egiten dituzten tailer txikiek, grabatugintzan diharduten behargin saiatuek.



Karlistak armak entregatzen. XIX. mendeko Eibarren ere ez zuten lan erraza izan, emakume liberalen batailoia eta guzti osatu baitzen herria defendatzeko.



Zeenketa Eibarren. 1899. Ignacio Zuloagarena.

# Bestelakoak

## IZNEI ERREPARATUZ

Eibarrek aurten bete dituen **677 urteetan**, herriak izan dituen **236 alkateen** artean badi-  
ra izen batzuk, batez ere familia batzuei lotuta,  
oihartun handiagoa izan dutenak eta baita ko-  
puru handiagoan kargua izan dutenak ere. Eu-  
ren artean daude honakoak: Agirre, Areitio,  
Arizmendi, Baskaran, Egiguren, Etxeberria, Gi-  
sasola, Ibarra (lizentziatua), Ibarzabal, Iñarra,

Isasi (hasierako urteetatik), Larrañaga, Lizal-  
de y Mallea, Lopez de Ibarra, Mallea, Olabe,  
Orbea (gehien errepikatzen den abizena),  
Santa Kruzeko markesa, Unzeta (etxe horrek  
ere ordezkari asko ditu) eta Unzueta, esate-  
rako. Dena dela, kasu batzuetan izen handi-  
ko familiakoak izanda ere, gaur egungo gure  
kaleetako izendegian ez da herriko alkaterik.

## HASIERAKO HUTSUNEAK

Eibarko Udal Artxibotik osatutako alkateen ze-  
rrendan, XV. eta XVI. mendeetako artean  
ez dira urte guztiak agertzen. Hori dela-eta, al-  
kate kopurua handiagoa izango bada ere, ho-  
nakoak dira Udal Artxiboan jasota daudenak.  
Lan bikain eta osotuak, hori bai, XVII. mendetik

honakoa ekartzen digu: **1600. urtean hasi eta  
honaino urtez urte**, kalerik egin gabe, Eiba-  
rrek izan dituen alkate guztien izenak jasota.  
Sasoi hartan, gainera, urtetik urtera izenda-  
tzen ziren: lehenengo irailaren 29an izenda-  
tuz eta, ondoren, urteberriarekin batera.

## ZINEGOTZIEN KOPURUA

Zinegotzien kopuruan ere hainbat aldaketa  
izan dira urte horien guztien buruan. Hasieran,  
bestalde, izen hori baino beste batzuk era-  
biltzen zituzten, erregidoreak eta halakoak. Be-  
hin XX. mendean sartuta, Eibarko zinegotzien  
